


Ajax, JSON Promesak eta fetch APIa

1. GDAX webguneak kripto-txanponen prezioa ezagutzeko API bat eskaintzen du. Adibidez, URL honi deituz <https://api.gdax.com/products/btc-eur/ticker> Bitcoin baten prezioa (Eurotan) emango digu, JSON formatuan (besteak beste, hainbat datu eskaintzen baititu dei horren erantzuna)



Bitcoin baten prezioa dinamikoa da, egunean zehar hainbat aldiz aldatuko da (segundoro aldatzen da!)

Ariketa honetan zera eskatzen da:

- fetch APIa erabiliz aurreko URL-ari deitu eta kontsolan idatzi Bitcoin baten uneko prezioa

2. loadImage() metodoa txantilo gisa erabiliz (gogoratu gai honi dagokion kapituluan azaltzen dela bere funtzionamendua)

```
function loadImage(url){
    return new Promise(resolve => {
        const image = new Image();
        image.addEventListener('load', () => {
            resolve(image);
        });
        image.src = url;
    });
}
```

```
loadImage('https://developers.google.com/web/images/web-fundamentals-icon192x192.png').
    then( image => document.body.appendChild(image) )
```

Inplementa ezazu loadAudio(url) izeneko beste funtzio bat, non parametro gisa audio fitxategi baten URLa ematen zaioan eta audio hori memorian kargatzen duen. Funtzioa implementatu ondoren, dei honen bidez audioa entzun beharko litzateke:

```
loadAudio('https://zerbitzaria.com/audioa.mp3').then( audioa => audioa.play() );
```